



2021/2022 denboraldia

13. ZIRKULARRA

GORENGOEN MAILAKO LIGA TXAPELKETA

Gipuzkoako Futbol Federazioak aurtengo denboraldiko Gorengoen Mailako liga txapelketa honela antolatu du:

1. KLUB PARTAIDEAK

GRUPO 1º	GRUPO 2º	GRUPO 3
1 DUNBOA EGUZKI C.D.	1 URNIETA K.E.	1 BEASAIN S.D.
2 HONDARRIBIA F.E	2 BILLABONA K.E.	2 ZESTOA K.B.
3 GURE TXOKOA K.K.E.	3 TOLOSA C.F.	3 IDIAZABAL K.E.
4 OIARTZUN K.E.	4 ORIOKO F.T.	4 LINTXA S.D.
5 PASAIA K.E.	5 USURBIL F.T.	5 ARETXABAleta K.E. UDA
6 SANPEDROTARRA F.E	6 GETARIAKO KETA F.T.	6 MONDRAGON C.F.
7 DEUSTO UNIVERSIDAD S.S.C.D.	7 DANENA K.E.	7 SORALUZE C.F.
8 VASCONIA C.D.	8 ASTIGARRAGAKO MUNDARRO FKE	8 IKASBERRI K.E.
9 ROTETA C.D.	9 HERNANI C.D.	9 ANTZUOLA K.E.
10 AXULAR K.K.E	10 ZUMAIKO F.T.	10 URKI C.D.
11 SANTO TOMAS LIZEOA	11 OSTADAR S.K.T.	11 LAGUN ONAK C.D.

2. LEHIAKETA SISTEMA

Gorengoen Mailako liga txapelketa 33 taldek osatzen dute, 11 taldeko hiru multzotan banatuta. Bi fasetan jokatuko da: puntuen bidez eta bi itzulietara (22 jardunaldi), eta Euskadiko Futbol Federakuntzako Arautegi Orokorreko xedapenak jarraituko dira.

A. Igoera Fasea:

Multzo bakoitzeko lau lehenak (4x3=12) 6 taldeko bi multzotan banatuta, bi itzulietara (10 jardunaldi) jokatuko dute fase hau.

Multzo bakoitzeko lehen bi sailkatuek gurutzatuta jokatuko dute bi itzulietara maiatzaren 22an eta 29an, eta lehen kanporaketa okerren sailkatu denaren zelaian izango da. Finalerdietako irabazleek finala jokatuko dute eta galtzaileek 3-4 postuak, partida bakarrera eta zelai neutralean, 2022ko ekainaren 5ean. Finaleko talde irabazlea kategoriako txapeldun izendatuko da.



Kanporaketa hauetan ondoen sailkatuta diren bi taldeak igoko dira Ohorezko Mailara, ezarritako arauen arabera horretarako aukera badute.

B. Mailari eusteko fasea:

Gainerako 21 taldeek mailari eusteko fasea jokatuko dute 6 taldeko multzo batean eta 5 taldeko hiru multzotan banatuta.

Multzo bakoitzeko lehen sailkatuek, zozketa egin ondoren, finalerdia jokatuko dute 2022ko maiatzaren 22an. Irabazleek 2022ko maiatzaren 29an jokatuko dute finala zelai neutralean. Finalerdia eta finala partida bakarrera jokatuko dira.

Ondorengo postu hautan okerren sailkatu diren 7 taldeak Erregionalen 1. Mailara jaitsiko dira:

Multzo bakoitzeko azken lau sailkatuak automatikoki jaitsiko dira, eta azken-aurreko lauek, zozketa egin ondoren, maiatzaren 22an eta 29an jokatuko dituzte finalerdiak. Finala eta 3-4 postuak ekainaren 5ean partida bakarrera eta zelai neutralean jokatuko dira, mailaz jaisteko falta diren 3 postuetako sailkapen-ordena zehazteko.

MULTZOA	MULTZOA	MULTZOA	MULTZOA
1	1	1	1
2	2	2	2
3	3	3	3
4	4	4	4
5	5	5	5
6			

FINALERDIAK ETA FINALA MAILARI EUSTEKO FASEKO TXAPELDUNA ZEHAZTEKO

FINALERDIAK bi itzuletara+ FINALA eta 3-4 POSTUAK MAILAZ JAISTEKO FALTA DIREN POSTUETAKO (3) SAILKAPEN-ORDENA ZEHAZTEKO

AUTOMATIKOKI JAITSIKO DIRA (4)

3.IRAUPENA ETA ALDAKETAK

Partidak 90 minutuko iraupena izango du, bost aldaketa egin ahalko dira eta gehienez zazpi ordezko egongo dira aulkian.

4.ORDUTEGIA

Klub antolatzaileek posible izango dute euren partida larunbat arratsaldera aurreratzea, 15:30etik aurrera, aurkariaren baimenik gabe.



5. DIZIPLINA ARAUDIA

Lehiaketa hau arautzeko Euskadiko Futbol Federakundeko Diziplina Araudia erabiliko da, eta sortzen diren gorabeheretan, lehenik Gipuzkoako Futbol Federazioko Diziplina Batzordeak erabakiko du, eta bigarrenik Euskadiko Futbol Federakundeko Apelazio Batzordeak.

6. XEDAPEN OROKORRA

“Koltxoi” mailaren kontzeptua mantendu egiten da, eta beraz maila honetan egon daitezkeen plazak ondoren aipatzen den eran eta hurrenkeran beteko dira:

- a) Erregionalen 1. Mailako talde bat igota.
- b) Gorengoen Mailatik jaitsitako taldeen artean ondoen sailkatu denaren jaitsiera saihestuta.
- c) Eta horrela behin eta berriro.

7. COVID-AREN ARAUTEGIA ETA PROTOKOLOA

Covid-19ari buruzko ezohiko araudia Gipuzkoako Futbol Federazioaren 10. zirkularrean jasota dago. Halaber, ahal den neurrian, SARS-COV-2 (COVID-19) SAIHESTEKO OSASUNAREN BABESARI ETA PREBENTZIOARI BURUZKO PROTOKOLOA BETETZEA gomendatzen da Euskadiko Futbol Federakundearen ENTRENAMENDUETAN ETA/EDO LEHIAKETETAN. Araudi hau hiru lurraldeetako federazioekin batera idatzia eta Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak onartua da.

Donostia, 2021eko iraila

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL


Iñigo Letamendi Artetxe
Idazkari Nagusia-Secretario General